

**OLAZTIKO UDALAK ANTOLATUTAKO JAI-EKITALDIETAN OBRETAKO
BRIGADA INDARTZEKO LANPOSTUAK KONTRATATZEKO DEIALDIAREN
OINARRIAK**

1.- ARAU OROKORRAK.

1.1. –. Deialdi honen xedea da lan-poltsa bat sortzea, Olaztiko Udalak antolatutako festetan sortzen diren beharrei erantzuteko.

1.2. Proba teoriko bat egingo da, test modukoa, batez ere gai hauei buruzko galderek osatua: Garbiketa, segurtasuna eta osasuna, Olaztiko kaleak, udal eraikuntza, eta abar. Proba uztailearen 4an egingo da, 12:00etan, Olaztiko kultur etxean. Epaimahaiak ezarriko du proba hau egiteko gehieneko epea, proba-egunean bertan. Probaren egunean, epaimahaiak adieraziko du zer puntuazio behar den proba gainditzeko.

1.3. 2022an, hiru pertsona kontratatzea aurreikusten da, uztailean lan egiteko. 3 egun balioduneko probaldia ezartzen da, eta horretan Administrazio kontratugileak diskrezionaltasunez ebatzi ahal izango du prozesu honetan hautatutako langileekin egindako kontratazioak.

1.4. Olaztiko Udalaren web-orria eta iragarki-taula bide ofizialak izango dira hautaketa-prozesu hau osatzen duten jarduerak argitaratzeko.

1.5. Ez da kontuan hartuko epez kanpo aurkeztutako dokumentazioa, hau da, 2022ko ekainaren 30etik aurrera aurkeztutakoa, ezta egiaztatu gabe dagoena ere.

1.6. Berdinketa gertatuz gero, proba praktikokoan puntuaziorik altuena lortu duen izangaiaren alde ebatziko da; eta, berdinketak bere horretan badirau, epaimahai kalifikatzaileak hartzen duen irizpidearen arabera ebatziko da.

1.7. Izangaiei deitzeko orduan, deialdi honen I. eranskinean ezarritako baldintzak hartuko dira kontuan.

1.8. Prozedura honetan parte hartzeko eskaera deialdiaren II. Eranskineko ereduaren arabera egingo da.

2. BALDINTZAK:

Lan-poltsa honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

- A) 18 urte beteak izatea eta erretiroa nahitaez hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.
- B) Eskola Ziurtagiria edo baliokidea.
- C) Lanpostuaren eginkizunetan aritzeko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.
- D) B1 gidabaimena.

3.- LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

a. Lanpostuak E mailari dagozkion ordainsariak izango ditu, aparteko ordainsarien zati proportzionala barne. Lansariak ezartzeko, Nafarroako Gobernuak administrazio

publikoetako langileentzat ezarritako soldata-taulak hartu dira erreferentziatzat.

b. Lanpostua lanaldi osokoa izango da, eta lan-ordutegia beharren arabera zehaztuko da, eta horretarako ematen den administrazio-egintzan jasoko da.

4-. PROZEDURA.

Prozedurak bi fase izango ditu:

- Oposizioaldia:

Proba izango da “test” erako hainbat galderari erantzutea, eta bakoitzak hainbat erantzun izanen ditu aukeran. Erantzun okerrak 0,10 punturekin zigortuko dira.

- Lehiaketaldia:

Euskara jakitea meritutzat joko da:

B1 maila (ahozkoa). Balorazioa: 0.75 puntu.

B2 maila (ahozkoa). Balorazioa: 1.50 puntu

4.1. Olaztiako Udalak aldi baterako egiten dituen kontratazioetan zorrotz bermatu behar ditu berdintasun, meritu eta gaitasun printzipio konstituzionalak. Hori kontuan harturik eta 113/1985 Foru Dekretuaren 42. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea aurkeztu eta aurreko baldintzak betetzen dituzten langabeen eta lana hobetzeko inskribatutako pertsonen zerrenda eskatuko zaio Altsasuko Enplegu Bulegoari hautaketa-prozesua gauzatzeko. Horretarako, hautagaiek proba praktikoa egin beharko dute epaimahaiaren aurrean eta euskara jakitea baloratuko da, puntuaziorik altuena duten izangaiak kontratatzeko.

Lan-poltsa osatzen duten izangaiak probetan lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko dira.

4.2. Izangaiak II. eranskinean adierazitako eskabidea aurkeztu beharko dute. Euskararen ezagutzari buruzko dokumentazioa ere erantsiko dute, hala badagokio, merezimendu gisa baloratzeko.

Eskaerak Altsasuko Enplegu Bulegoan aurkeztu beharko dira **2022ko ekainaren 30eko 14:00ak baino lehen.**

4.3. Bigarren puntuazio adierazitako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak prozeduratik kanpo geratuko dira. Izangai guztiek baldintza honen 2. oinarrian adierazitako baldintzak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, eta edozein unetan eta, batez ere, kontratua sinatu aurretik hori frogatzeko eskatu ahal izango zaie.

4.4 Proba uztailaren 4an egingo da, 12:00etan, Olaztiako kultur etxean. Proba horretara NANA eraman beharko dute interesdunek. Probaren iraupena epaimahaiak probaren hasieran ezartzen duena izango da. Pliken sistema erabiliko da.

4.5. Bi proben behin-behineko emaitzak 1.4 puntu adierazitako bideetan argitaratuko dira, eta 2 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak/berrikuspenak egiteko. Epe hori igarota, erreklamaziorik egon ez bada, emaitzak behin betikotzat hartuko dira, eta izangaien zerrenda osatuko da, lortutako puntuazioari jarraituz. Proposamena horretan eskumena duen kontratazio-organismoari egingo zaio.



Erreklamaziorik balego, epaimahaiak horren gaineko ebazpena eman eta behin betiko emaitzak argitaratuko ditu, betiere lortutako hurrenkerari jarraikiz, eta proposamena eskumena duen kontratazio-organoari egingo zaio.

5. EGINKIZUNAK

- Kaleen garbiketa.
- Jaietako jarduerak prestatzen laguntzea.
- Hiri-altzariak muntatzea eta desmuntatzea.
- Zerbitzu anitzetako arduradunak agintzen dizkion antzeko zereginak.

5. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.

Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Joseba Vizuete Ascargorta, Olzagiko alkate-udalburua.

Mahaiburuaren ordezkoa: Unai Ruiz Larraza lehen alkateordea.

Lehen bokala: Carlos Luquin Astiz Udalaren Obren lantaldeko arduraduna.

Lehen bokalaren ordezkoa: Mikel Arrese Ezquer udal albientea.

Bigarren bokala: José Miguel Aguirre Lopez udal albientea

Bigarren bokalaren ordezkoa: Lourdes Guruziaga Diez udal garbitzailea

Hirugarren bokala: Olatzagutiako Udaleko langileen ordezkariak proposatutako pertsona bat. Izendatu beharrekoa

Hirugarren bokalaren ordezkoa: Olatzagutiako Udaleko langileen ordezkariak proposatutako pertsona bat. Izendatu beharrekoa.

Idazkaria: Virginia Alonso Aparicio udal ludotekako kultur teknikari eta koordinatzailea. Idazkariaren ordezkoa: Sandra Martinez Gutierrez, Udaletxeko idazkaria.

Deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sortzen diren afera guztiak gehiengoz erabakiko ditu epaimahaiak.

7.- ORGANO ESKUDUNA.

Epaimahaiak proposatuko dio Olzagiko alkate-lehendakariari lan-poltsa osatuko duten izangaiak izendatzeko, izangai bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera.

8.- ERREKURTZOAK

Deialdi honen, oinarrien eta aplikatzeko egintzen aurka ondoko errekursoetako bat aurkez daiteke, hautara:

- a. Berraztertze errekursoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- b. Administrazioarekiko auzi-errekursoa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekursoaren



xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

- c. Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.

Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

9.- DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO POLITIKA.

Izangaien datu pertsonalak Olaztiko Udalaren ardurakoa den fitxategi batean sartuko dira, eta hautaketa-prozesu hori kudeatzeko erabiliko dira, betiere deialdiaren oinarrien arabera. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako. Nolanahi ere, izangaien zerrendak Udalaren web-orrian eta iragarki-taulan argitaratuko dira. Datuen tratamenduak beharrezkoak dira interes publikoaren aldeko deialdia gauzatzeko (2016/679 Erregelamenduaren 6.1.e artikulua, ekainaren 5eko 113/85 Foru Dekretuan oinarri duena. Dekretuaren bidez onetsi zen Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua).

Hautaketa-prozesua gauzatu bitartean eta alderdiek espedientearen inguruan aurkeztu ditzaketen jardueren preskripzio-epetan gordeko dira datu pertsonalak. Prozesu guztia amaitzean behar ez diren datuak ezabatuko dira, betiere aplikatu beharreko artxibo eta dokumentuei buruzko foru araudian ezarritakoarekin bat.

Datuen titularrek eskubidea izango dute euren datu pertsonalak eskuratu, zuzendu (okerrak direla uste badute) edota kentzeko (beharrezkoak ez direnean). Legez aurreikusitako kasuetan ere erabili ahal izango dute tratamendua mugatzeko eskubidea, bai eta aurka egitekoa ere, egoera jakin batzuetan eta beren egoera partikularrarekin lotutako arrazoiengatik. Horretarako, Udalera jo beharko dute, eta han emanen zaizkie ereduak eskubide horiek gauzatzeko Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute Datuak babesteko Espainiako Agentzian (agpd.es), betiere tratamenduak indarreko araudia betetzen ez duela uste badute.

Olazti, 2022ko ekainaren 21a.- Alkatea, Joseba Vizuete Ascargorta



I. ERANSKINA: LAN-POLTSARAKO ARAUAK: DEITZEKO IRIZPIDEAK

1. Probak gainditzen duten izangaiekin lan-poltsa sortuko da etorkizunean ordezkapenak bideratu ahal izateko, Udalak horren beharra badu.
2. Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokituko da, eta administrazio organo eskudunek noiznahi aldatu ahalko dute.
3. Puntuazio ordenaren arabera egingo dira beti ere deiak, ondoko paragrafoetan ezarritakoari kalterik egin gabe.
4. Telefonoz, posta elektronikoz edo interesdunarekin komunikazio azkarra eta arina ahalbidetzen duen beste edozein bitartekoren bidez egingo dira jakinarazpenak.
5. - Udalak bi jakinarazpen- edo abisu-saio egingo ditu bi eguneko epean. Kontuan harturiko lan-poltsan dagoen pertsonak gehienez ere 24 orduko epean onartu edo gaitzetsiko du eskaintza. Ezin izan bada harekin harremanetan jarri, edo eskaintza ez balitz onartuko, puntuazio ordenaren arabera zerrendan dagoen hurrengoari egingo zaio eskaintza.
6. Justifikaziorako eta kontsultarako, hala behar badu, indarrean dauden lan-poltsen erregistro xehea eramango da, eta baita hautagaiekin harremanetan jartzeko eginiko saio edo/eta tramiteen erregistroa ere, hala behar izanez gero, horien aldetik jasotako erantzunez gainera.
7. Lan-poltsako kide batek behin lanean hasi ondoren lana utziko balu, lan-poltsatik kanpo geratuko litzateke. 15 egun lehenago lana utziko duela jakinaraziko balu, lan-poltsatik kanpo 2 hilabetez geratuko litzateke besterik ez.
8. Gizarte Segurantzako mediku batek eritasunez edota istripuz aldi baterako lan ezintasuna ziurtatuko balu deitutako hautagaia ez da lan-poltsatik baztertuko.
9. – Poltsa hori indarrean egongo da behar horiek betetzeko poltsa berri bat eratu arte.



II. ERANSKINA ESKABIDE EREDU OFIZIALA

Izen-abizenak:
adinez nagusia; Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:
bizitokia.....
telefonoa:.....
e-posta:

ERANTZUKIZUNEZ ADIERAZTEN DU: (x batez markatu)

- € Deialdian eskatutako baldintza guztiak betetzen ditu, behar den epean eta moduan.
- € Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean eskatzen den titulazioa duela, eta eskatzen zaionean aurkezteko konpromisoa hartzen duela.
- € Ahozko B1 euskara-maila egiaztatzen du, lehiaketa-fasean baloratzeko.
- € Ahozko B2 euskara-maila egiaztatzen du, lehiaketa-fasean baloratzeko.

Hori guztia dela eta, **honako hau ESKATZEN DUT:**

- Eskabide hau garaiz eta taxuz aurkeztu dudanez, honen bidez eskatzen dut onartua izatea **OLAZTIKO UDALAK ANTOLATUTAKO JAI-EKITALDIETAN OBRETAKO BRIGADA INDARTZEKO LANPOSTUAK** betetzeko prozesuan.

(eskatzaillearen data eta sinadura)